

**IKERBASQUE ERREKONozIMENDUAK EMATEKO EKITALDIA  
ACTO DE ENTREGA DE LOS RECONOCIMIENTOS IKERBASQUE**

2022-02-22 Vitoria-Gasteiz 22-02-2022

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore andrea, Mondragon Unibertsitateko errektore jauna, sailburuorde, Saileko zuzendariok, Ikerbasqueren zuzendaria, jaun-andreok, arratsalde on bertaratutako guztiok eta baita streaming bitartez jarraitzen ari zareten guztiok, ongi etorriak bai bertora bai ekitaldira. Be welcome to Euskadi Basque Country, be welcome to your new home.

Gaurkoan pertsonak, zientziak eta ikerkuntzak elkartzen gaitu.

Ikerbasque-ren xedea zientzia bultzatzea da, talentua erakartzea, euskal herriko eta munduko gizarte zientifiko-teknologikoa eraikitzen laguntzea. Bide horretan lortutako emaitzak ezagutu ditugu.

Harro gaude eta zuen lana eskertu nahi dugu. Harro, Ikerbasquek 15 urteotan jorratutako bidearengatik. Eskertuta gaude, baita ere, Ikerbasqueko ikertzaileei harrera eta tokia egiten dieten zentro eta agente guztiei.

Mezu argia da gurea: Zientzia euskal erakundeen estrategiaren ardatz bat da. Zientziaren alde egiten ari garen apustuak emaitza asko eta onak ematen dizkigu. Apustu sendoa eta iraunkorra da gurea.

Estrategia honi esker, Euskadi erreferente bat da European ikertzaileak erakartzen. Nazioartean, ikerketa aurreratua duen Eskualde gisa aitortzen gaituzte, mailarik goreneko ikerketa-taldeak ditugulako. Hori guztia, neurri handi batean, Ikerbasquek egiten duen lanari zor zaio.

Las personas, la ciencia y la investigación están en el centro y en la prioridad de nuestras políticas, porque son la llave de nuestro futuro.

Ikerbasque ha elaborado un nuevo Plan Estratégico 2024. Un Plan con el que Euskadi va a dar un impulso adicional a la ciencia vasca. Un Plan que se basa en la estabilidad y ofrece certidumbre. Nuestro compromiso es incorporar a 100 nuevas personas investigadoras, hasta alcanzar las 400 en 2024.

Afrontamos dos retos prioritarios:

- conseguir que más del 40% de las incorporaciones sean mujeres; y
- recuperar a las y los investigadores vascos que se encuentren en el extranjero y quieran proseguir sus carreras científicas en Euskadi.

Vamos a continuar la labor de atracción, repatriación y retención de personas investigadoras como activo fundamental para el impulso de la ciencia en Euskadi.

Zientziari babesa ematea funtsezko elementua da gure gizartearentzat; Euskadiko lehiakortasuna hobetzeko.

Eusko Jaurlaritzatik Ikerketa eta Garapenerako inbertsio publikoa indartzen ari gara legegintzaldi honetan. Beharrezkoa da zientzian egiten dugun inbertsioa handitzen jarraitzea.

Gure inbertsioa % 4 baino gehiago hazi da aurreko urtearekin alderatuta, horrela 1.480 milioi euroko maximo historikora iritsi gara.

Inbertsio horren zati handi bat pertsoneri zuzenduta dago. Euskadik modu erabakigarrian inbertitzen du talentua erakartzen, atxikitzen eta aberrirutzen. Pertsonak, ikerlariak, zarete gure inbertsiorik onena.

El Gobierno Vasco está reforzando la inversión pública en I+D también esta legislatura. Una parte muy importante de esa inversión está dirigida a las personas, las y los investigadores.

Euskadi es la Comunidad del Estado que más invierte en actividades de I+D en relación al Producto Interior Bruto. Nos acercamos al 2 %. Hemos alcanzado el máximo histórico de 1.480 millones de euros y esto representa un incremento de más del 4% en relación al año anterior.

Zientzia eta ikerketa, gizarte aurreratu baten zutabeak dira. Zutabe horiek indartzen jarraitzea da gure konpromisoa. Bide beretik jarraitzea da gure asmoa, oraindik ere gure zientziaren eta ikerketaren aldeko apustua sendotuz.

Ikerbasqueko ikertzaileei eta zuen familiei gure esker ona adierazi nahi dizuegu. Zuen garapenean eta lanean bidelagunak izango gaituzue. Horregatik, zentzu horretan, zuen lana bezala gure lana ere gaur hasiko da.

Eskerrik asko eta hasieran esaten den bezala, baita bukaeran ere, ongi etorri!